

BERTANBERA ITXIA

Ire otsa, lenago, gizatsu etorran;
ire kezakak, be, oso nireak zitunan.

Ez egin ezikusi; ire erlantz bizia
aurrean izan ycnat gozo, maitatia.

Gaur alan da be arrotz non, bai, biotzean;
geiegi otoiztu aut, baiña i tink eurean.

Aste batzuk dirala goibel nago, ta utsik,
poz-senez gabetua, maitetasun ezik.

Gorde yataz izarrak zerupe baltzian,
ez dabilkidaz geroz almenak neurrian.

Lora bustiak, aurki, ez dakarste usaiñik;
oiuz dabil iparra itxaso aldetik.

Gainditu yatan arren samiñaren loa,
ez dot nai aita zorrotz dakizun Jainkoa.

Ozka dot biotzean sargori astuna...
Bizitz! Ez al az, egiz, negar-bide illuna?